

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

208. zenbakia

Data 2002-11-04

18871 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Telekomunikazioen sareei dagokien instalazio erradioelektrikoak arautzen dituen ordenantza. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Hirigintza Diziplina eta Ingurumeneko Zuzendaritza

Iragarkia

Donostiako Udalbatzak 2002ko irailaren 25ean behin betiko onartzea erabaki zuen Telekomunikazio Sareetako Instalazio Erradioelektrikoak Arautzeko Ordenantza.

Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua agintzen duena bete eta behin betiko onartutako Araudiaren testua argitaratuko dugu orain, oso-osorik.

TELEKOMUNIKAZIO-SAREETAKO INSTALAZIO IRRATI-ELEKTRIKOEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

HITZAURREA

Telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioaren eraginez, azkar hazi dira kalitatezko zerbitzua egiteko beharrezkoak diren telekomunikazioko elementu guztiak. Telekomunikazio-zerbitzuek lurraldean eragin zuzena duten azpiegiturak behar dituzte. Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako operadoreen ezarpen-prozesuak eta merkatuaren gorakada azkarrak nolabaiteko disfuntzioak eragiten ari dira eta disfuntzio hauen ondorioz beharrezkoa da Toki Administrazioak prozesu honetan esku hartzea.

Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25., 26. eta 28. artikuluetan eta hirigintza eta ingurumen arloko arauetan onartzen diren aginpideen indarrez esku hartu behar dute udalerriek prozesu honetan.

Ordenantza honetan biltzen den udal-arautzearen kalterik gabe, erabat eta nahitaez aplikatu beharko dira telekomunikazioen sektorea arautzen duen sektoreko berariazko arauak; gaur egun ondokoak dira funtsean: Telekomunikazioen 11/1998 Lege Orokorra, apirilaren 24koa; 1/1998 Errege Dekretu Legegilea, otsailaren 27koa; 11/1998 Legearen II. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1651/1998 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 24koa; 11/1998 Legearen III. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1736/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa; Telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzko 279/1999 Errege Dekretua, otsailaren 22koa; herriaren jabari irri- elektroteknikoa babesteko eta jaurtipen irri- elektroteknikoen aurrean hartu beharreko babes neurriei buruzko 1066/2001 Errege Dekretua, irailaren 28koa; Zientzia eta

<teknologia Ministerioaren 2372002 Garapen Agindua, urtarrilaren 11koa; eta arlo honetako mota guztietako instalazio eta ekipoei buruzko araudiak eta zehaztapenak.

Aintzat hartu behar diren aginpideen azterketa juridikoari jarraituta, nabarmendu behar da Telekomunikazioen 11/1998 Lege Orokorrak ezartzen duenaren arabera, Estatuari dagokiola, besteak beste, jabari irrati-elektriko publikoaren kudeaketa, onar daitezkeen eta osasun publikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeen emisio irrati-elektrikoaren mailak zehazteko prozeduren arauzko garapena eta telekomunikazio zerbitzuen eta sareen ikuskaritza lanak. Garapen hori dagoeneko islatuta dago uhin irrati-elektrikoaren esposizio denboraren gehieneko mugak eta bestelako murrizketak arautzen dituen 1066/2001 Errege Dekretuan eta, hain zuzen ere, Ordenantza honetan jasotzen diren instalazioetako emisioak han ezarritakoaren mende jarriko dira.

Arlo honen antolamenduari ekiterakoan gogoan izan behar da jendea orokorrean 0 Hz eta 300 GHz arteko eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz 1999ko uztailaren 12an Europar Batasuneko Kontseiluak emandako Gomendioa (1999/519/CE).

Bestalde Europar Batasuna ikerketa-arloko ekintzak ari da bideratzen eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak «Ingurumena eta Osasuna» izeneko estrategiari hasiera ematea erabaki du. Estrategia hori Ingurumenari buruzko Seigarren Programa Europarraren (2001-2010) barruan biltzen da.

Europa mailan indarrean dagoen araudiari dagokionez, Normalizazio Elektroteknikoaren Europar Batzordearen ENV 50166-2 aurre-arauean eta Normalizazio eta Egiatzapeneko Espainiako Elkartearen (AENOR) UNE-ENV 50166-2 arau esperimentalean jasotzen dira, frekuentzia irrati-elektrikoetarako, eremu elektromagnetikoan egoteari buruz jendearentzat orokorrean onartzen diren gehieneko maileri buruzko gaur egungo gomendioak –Telekomunikazio Arauetarako Europar Institutuak (ETSI) onartzen dituenak–.

Nazioarte mailan, Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) eremu elektromagnetikoek pertsonengan duten eraginari buruzko azterketa-proiektu batean hartzen du parte. Proiektu honek «(1996-2005) CEM Nazioarteko Proiektua» izena du.

Horrenbestez, ordenantzak tresna baliagarria izan nahi du mota honetako instalazioek bete beharko dituzten baldintza teknologikoak, ingurumena babesteko baldintzak, segurtasun-baldintzak eta hirigintza-baldintzak ezartzeko. Izan ere, mota honetako instalazioetarako baimena ematerakoan alderdi hauek kontrolatuko dira.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da, legeriak Udal Korporazioei ematen dizkien eskumenen barruan Donostiako udalerrian instalazio irrati-elektrikoek beren kokapen, instalazio eta funtzionamenduan bete behar dituzten baldintzak arautzea, ahalik eta espazio gutxien har dezaten, ahalik eta begi-bistako eragin txikiena izan dezaten eta ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Ordenantza hau 0 Hz eta 300 GHz bitarteko frekuentzia-tartean eremu elektromagnetikoak sor ditzaketen antenak dituzten eta udalerrian kokatuta dauden irrati-frekuentziako instalazio guztiei aplikatuko zaie.

2. Ondoko ezaugarriak betetzen dituzten irrati-amateurren antena gisa katalogatuta dauden antenak salbuetsita daude:

a) Ez dira 250 W-ko potentziara heltzen.

b) Jarraitasunik gabe transmititzen dute.

c) Komunikazioetako Idazkaritza Nagusiaren aginduzko baimena dute.

d) Behar bezala legeztatuta daude.

II. TITULUA

INTERES-GUNEAK

3. artikulua. Interes-guneen komunikazioa.

III. Tituluan aipatuko diren lizentzien tramitazioari ekin aurretik, era honetako instalazioak (oinarrizko estazioak, antenak, konexiorako elementu osagarriak eta beharrezko beste elementu tekniko batzuk) egin edo aldatu nahi izanez gero, telekomunikazioko operadoreak instalazio berriak egiteko edo lehengoak aldatzeko premia behar bezala argitzen duen memoria aurkeztu beharko du idatziz Udaletxe honetan.

4. artikulua. Memoriaren edukia.

Memoriak, oinarrizko estazioen, eskuko telefoniarako antenen eta irrati-frekuentziako beste edonolako elementuen kopurua zehaztu beharko du, bakoitzaren izena eta deskribapena azalduz. Era berean, emandako zerbitzuak eta erabili nahi diren teknologiak adieraziko ditu, proposatzen den irtenbide teknikoa justifikatuz, lan horiek gutxi gorabehera noiz burutuko diren eta aukeran egon daitezkeen kokaleku alternatiboak erakutsiz.

5. artikulua. Telekomunikazio-zerbitzuetarako udal-antolamendua.

Udalak telekomunikazio-zerbitzuen sarean beharrezkoak diren instalazioen kokapena antolatzeko xedez biltzen den informazioa erabili ahal izango du, betiere teknikoki eta legez posible bada.

III. TITULUA

UDAL BAIMENA

6. artikulua. Baimen eskaera.

1. Beste administrazio publiko eskudunek beren ahalmenen arabera eska ditzaketen baimenez gain, ordenatza honen xede diren erradiokomunikazio elementuek eta horien edukiontzien udal jardura eta instalazio lizentziak eskuratu beharko dituzte.
2. Instalazioaren ezarpena jardura-baimena behar duen jardueratzat hartuko da eta martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan arautzen den prozeduraren menpe egongo da; izatez, Dekretu honek otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko Ingurumenaren Babespenerako Lege Orokorrean edo horren ordezkoko araudian aurreikusten den jardura-baimena lortzeaz salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen du.
3. Telekomunikazio-instalazioak ingurumenari dagokionez sentikorrek diren eremuetan ezarri nahi izanez gero, 3/98 Lege Orokorrean edo honen ordezkoko araudian jasotzen den ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura indibidualizatuaren menpe eta Ingurumena babesteko jasotzen diren gainerako betebeharren menpe egon beharko da. Eremu sentikor gisa hartuko dira irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuko 8.7.d) artikuluan eta Zientzia eta Teknologia Ministerioaren urtarrilaren 11ko Aginduaren 3. artikuluan halakotzat jotzen direnak.
4. Artikulu honetako 2. atalean jasotzen diren izapideak egiteko, jardura baimena eta obretarako aldi berean eskatu ahal izango dira.
5. Udal baimena eman aurretik ordenantza honetako 3. eta 4. artikuluetan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko dira derrigorrez.

7. artikulua. Dokumentazioa.

Jardura eta obretarako baimen eskaerarekin batera bidezko dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko da. Horren gutxieneko edukia, I eranskinean finkatzen den bera izango da.

8. artikulua. Informazio osagarria.

1. Udalak erabakia hartzerakoan aintzat hartu beharreko datuak finkatzeko, ezagutzeko eta egiaztatzeko txostenak eskatu ahal izango ditu, espedientea osatzeko bideratu beharreko egintza gisa.

9. artikulua. Baimenaren izapideak egitea eta neurri osagarriak ezartzea.

1. Udal Zerbitzu Teknikoek dokumentazioa aztertu eta egon daitezkeen alegazioak ikusi ondoren, irrati-frekuentziako instalazioen behar bezala funtzionatzeko behar dituzten neurri osagarriak eska ditzake Udalak.
2. Era berean, instalazio horiek mimetizatzeko eta ingurunean harmoniaz txertatzeko ekintzak ere agindu ditzake.

10. artikulua. Instalazioak martxan jartzea.

1. Instalazioa martxan jarri ahal izateko, aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten diren baldintzetara egokitzen dela eta eskatutako neurri osagarriak hartu direla ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da Udaletxean. Ziurtagiri horrekin batera,

telekomunikazio-zerbitzuen alorrean eskumena duten Administrazioako organo eskudunen baimenak eta irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuak ezarrita dituen gehieneko potentzia-dentsitateak ez direla gaindituko ziurtatzen duten agiriak ere aurkeztu beharko dira. Hori horrela izan dadin, gai honetan eskumena duen Administrazioak luzaturiko instalazioen neurketa eta ikusketa-akta egokia aurkeztu beharko da Udaletxe honetan.

11. artikulua. Baimena eman ondoren sortutako aldaketak Udalari jakinarazi beharra.

1. Instalazioaren titularitatea aldatu nahi bada edo telekomunikazioko instalazio irrati-elektroko elementuak eta antenak ordezkatu nahi badira, Udalari jakinarazi beharko zaio.
2. Baimena lortzeko funtsezkoak izan diren ezaugarriak erabat aldatu edo berritu nahi badira, instalazio berrirako eskatzen diren beharkizun berberak bete beharko dira.

12. artikulua. Osasuna zaintzeari buruzko informazioa.

Operadoreek gehieneko potentzia-dentsitate mailak errespetatzeari buruz telekomunikazioen kontrolerako erakunde eskudunei urtero derrigorrez eman beharreko ziurtagiriak eska diezazkioke Udalak osasun publikoaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari.

13. artikulua. Errolda berezia.

Udalak, telekomunikazio-sareetako instalazio irrati-elektroko Errolda berezia izango du, mota horretako instalazio guztien altak eta bajak jasotzeko ez ezik, horietako aldaketak eta kokaleku edo jabetza aldaketak ere jasota edukitzeko. Errolda horri mapa bat gehituko zaio erregistraturiko instalazioak non diren kokatzeko.

Interesatuta dauden herritarrek, arau honek aztergai dituen instalazio irrati-elektroko kokapena ezagutzeko eskubidea izango dute, instalazio horietan egiten diren jaurtipen-neurketei buruzko datuak ezagutzekoa bezalaxe.

Instalazio baten aldaketa egiten denetik hasita edota instalazioa egin zenetik urtebetera Errolda berezi horretan uhin elektromagnetikoen neurketarik buruzko daturik ez balego, Udalak neurketa horiek egiteko eskubidea izango du, bai bere kabuz, bai edozein hiritarren eskariz.

IV. TITULUA

INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

14. artikulua. Irizpide orokorrak

1. Izaera orokorrez irrati-frekuentziako instalazioek ondoko irizpideak bete beharko dituzte:

a) Merkatuan dauden teknologien artean ikus-eraginik txikiena eta ingurumenaren gainean eraginik txikiena sortzen duen eta pertsonen osasuna hobekien zaintzen duen teknologia erabili behar da.

b) Ingurumenarekin bateragarriak izan behar dute, ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina murriztuz.

c) Ordenantza honen II. eranskinean jasotzen diren integrazio arkitektonikoari eta segurtasunari buruzko arauak bete beharko dituzte, bai eta bide batez, Eraikuntzako Ordenantza Osagarrietan eta/edo administrazio eskudunek eman dezaketan beste edozein arautan ezartzen diren arauak ere.

15. artikulua. Kokatzeko irizpideak.

1. Udalerrian telekomunikazio-instalazioetarako eskatutako balizko kokapenak finkatzerakoan, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen irizpideez gain, ondoko irizpideak ere hartu beharko dira aintzat:

a) Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak agintzen dituenak.

b) Antena igorlearen irradiatze-noranzko nagusian gutxienez 10 metroko tartea gorde beharko da instalazioekin zerikusirik ez duten pertsonak sartzeko aukera edo sar daitezkeen edozein eremu librearekin. Nolanahi ere, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan aurreikusten diren potentzia-dentsitateko gehienezko balioak ezin izango dira gainditu sarrerak hartzen duen eremuan; ez eta Administrazio eskudunek xede berberaz ematen dituen arautegiak aurreikus ditzakeen mugak ere.

2. Ekipo edukiontziak instalatzeko irizpideak.

Ekipo edukiontziak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Telekomunikazio ekipoetako tresneria gordetzeko baino ez dira erabiliko.

b) Girotuak izanez gero, hozte sistemak zaraten eta bibrazioen Ordenantza bete beharko dute funtzionamenduari dagokionez.

c) Edukiontzitik hurbil beharizan berezi bakoitzaren arabera su itzalgailuak ezarri beharko dira, haietako batek, gutxienez 13-A eraginkortasun maila izango duela.

d) Edukiontzen barnealdera behar bezala baimendutako langileak baino ez dira sartuko, alorreko arau bereziek xedaturiko segurtasun eta babes neurriez, gainerako lagunak sartzerik ez izateko neurriak hartu beharko dituztela.

e) Halaber, xedatuko da nolako neurri zuzentzaileak hartu behar diren beroa ondoko espazioetara hel ez dadin.

f) Horien kokalekuak ez du eragotzi behar eraikineko estalkira atera ahal izatea artatze eta konpontze lanak egitera.

g) Erabilera publikoko tokietatik ikusgarri balitz, horren ingurutzailea eraikinaren kolore, itxura, bolumen eta abar berekoiez mimetizatuko da.

V. TITULUA

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

16. artikulua. Instalazioen kontserbazioa eta segurtasuna.

1. Baimenen eta emakiden titularrek bere gain hartuko dute hauek segurtasun eta kontserbazioko egoera egokietan mantentzearen ardura.
2. Udal zerbitzuek kontserbazio-egoera eskasa antzematen dutenean, irregulartasunaren berri eman beharko diete baimenaren titularrei, jakinarazten zaienetik epe jakin baten barruan irregulartasuna zuzentzeko neurriak har ditzaten. Pertsonentzako edo ondasunetarako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzematen direnean, berriz, bidezko neurriak berehala hartu beharko dira, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera.
3. Jarduera behin betiko bertan behera uzten denean edo erabiltzen ez diren instalazio horretako elementuak bertan behera uzten direnean, baimenaren titularrak edo instalazioen jabeak irratikomunikazioko ekipoak eta elementuak eta instalazio horri eusten dion eraikuntza edo eraikina desegin eta kentzeko ekintzak burutu beharko ditu, baita lursaila instalazio hau instalatu aurreko baldintzetan uzteko beharrezko ekintzak ere.
4. Telekomunikazio-sareetako instalazio irratielektrikoak jendea ibili daitekeen zabaltzetan badaude, eremu horiek behar bezala seinalizatuta egongo dira gutxieneko segurtasun zona bermatuta gera dadin.

17. artikulua. Kautelazko neurriak salbuespenez hartzea.

1. Salbuespen gisa eta zigor-espeditentari hasiera eman aurretik, Herri Administrazioek zigor-izaera izango ez duten ondoko kautelazko neurriak finkatu ahal izango dituzte eta ordenantza honetan arau-hauste gisa zehazten diren gertakarietako edozeinen ustezko arduradunari neurri hauek har ditzan exijitu ahal izango diote:

- a) Obrak edo jarduerak etetea.
- b) Aparatuak edo ekipoak zigilatzea.
- c) Ingurumenarekiko kaltea zabal dadin eragotziko duen zuzenketa, segurtasun edo kontroleko beste edozein neurri.

VI. TITULUA

ARRISKUAK BERMATZEKO ETA ASEGURATZEKO TRESNAK

18. artikulua. Arriskuak aseguratzea

1. Baimena eskatzen duten operadoreak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek aseguru-tresnen titularitatea justifikatu beharko dute; alabaina, aseguru hauek instalazio irratiekoak ezartzeak ondasunetan eta pertsonengan izan ditzakeen ondorioei behar bezala erantzuteko aukera eman beharko dute.

2. Aurreko artikulua ondozondorako, ondoko tipologiaen artean hautatu ahal izango da:

a) Udalarentzat behar beste berrak beharko diren autoaseguru-sistemak.

b) Aseguruen merkaturako kontratatutako berariazko aseguruak, bai erantzukizun zibilari dagokionez, bai beren ondasun eta instalazioei dagokienez.

3. Modalitate hauetako edozeinetan aukeratutako tresnak eskatzaileak udalerrian bere titularitatepean dituen instalazio guztiak estali beharko ditu.

19. artikulua. Instalazioak kentzea eta ingurunea lehengoratzeta.

1- Pertsonen osasunerako edozein arrisku antzeman dela-eta instalazioen funtzionamendua premiaz gelditu behar bada, baimenaren titularrari lan hori geldiaraztea eskatuko zaio. Nolanahi ere, instalazioak kendu behar badira, ingurua leheneratu egin beharko da. Arriskua Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txosten bidez finkatuko da.

VII. TITULUA

ZIGOR-ARAUAK

20. artikulua. Aplikatu daitezkeen araudia

Antolamendu honen ondoriozko arau-hausteak indarrean dagoen legeriaren arabera zigortuko dira (Lur erregimenari buruzko Legea eta arautegi osagarria, 30/1992 Legea eta, bereziki Euskal Herriko Ingurumenaren Babespenerako Lege Orokorra, hots, 3/1998 Legea).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen a. Baimenik gabeko irratieko instalazioak.

Bidezkoak diren zigoren kalterik gabe, Udalari irratieko instalazio bat ordenantza honetan arautzen den aginduzko baimenik gabe funtzionatzen ari dela jakinarazten zaionean, Udal honek honela jardungo du:

a) Instalazioak ordenantza honetan biltzen diren baldintzak betetzen baditu, instalazioa legeztatze epe jakin bat emango zaio; Nolanahi ere, ez da sei hilabetetik gorako epea izango.

b) Sektore honi dagokionez indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik edo ordenantza honetan ezartzen dena ez betetzeagatik instalazioa legeztatzerik ez badago, instalazioa itxi egin beharko da, betiere interesatuari entzun ondoren.

Bigarrena. Irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua betetzea.

Gehieneko potentzia-dentsitateari dagokionez, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuak edo arlo hau erregulatuz dekretu horren ordeztzatzen den arauak eremu elektromagnetikoen eraginpean egotearen inguruan ezartzen dituen xedapen guztiak bete beharko dira.

Hirugarrena. Baimendutako instalazioak ordenantzara egokitzea.

Ordenantza honen xede diren eta aurretik Udalaren baimena duten eta funtzionatzen ari diren instalazioek hiru hilabeteko epea izango dute ordenantza honetara egokitzeko.

Egun sentiberatzen jotako aldeetan diren instalazio erradioelektrikoak, halakoak direla irailaren 28ko 1.066/2001 Dekretuko 8.7 d) artikulua eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak urtarrilaren 11n emandako 23/2002, Aginduko 3. Artikuluak xedaturikoak, horiek ere bete beharko dituzte ingurumen eragina neurtzeko banako ebaluazio prozedura jardura legezatzeko lizentzia jaso ahal izateko.

AZKEN XEDAPENA

Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilko 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2. artikuluetan ezartzen denari jarraituta, ordenantza hau Udalbatza Osoak onartu beharko du eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta 15 egunetara jarriko da indarrean. Aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean indarrean egongo da ordenantza.

I. ERANSKINA

TELEKOMUNIKAZIO-INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK

1. Instalazioen egiaztagiri teknikoak.

—Eraikinak instalazioaren gainkarga jasan dezakeela egiaztatzen duen egiaztagiri teknikoa; edozein motatako proiektuko egitura-errefortzurik egin behar izanez gero, hau ere teknikari aginpidedun batek sinatu beharko du.

—Ekipoak eta aparatuak aplikatzen zaizkien zehaztapen teknikoekin bat datozeela egiaztatzen duten onarpen-egiaztagiriak.

—Dagokion telekomunikazio-zerbitzua egiteko gaitzen duen bidezko tituluaren jabe izatearen egiaztagiria, aplikatu daitezkeen araudi orokorrean eta sektoreko araudian xedatutakoaren arabera. Edota eskabidea egiteko bidezko titulua duen pertsona batek eskatzailea behar beste ahalmentzen duela jasotzen duen egiaztagiria.

2. Proiektuaren edukia.

Proiektuak ondoko edukia izan beharko du:

a) Enpresa eskatzailearen datuak:

I. Sozietatearen izena eta IFZ.

II. Helbide osoa.

III. Legezko ordezkariak.

b) Oinarriko proiektua, teknikari aginpidedunak idatzia. Proiektuak jardura deskribatzeko behar beste informazioa bildu beharko du eta emisioen iturria eta emisioen mota eta magnitudea adierazi beharko du.

I. Jarduerak eraginpean egon daitekeen inguruan duen eragina.

II. Sektorean indarrean dagoen araudia betetzen dela justifikatzea.

III. Erradiazio ez ionizatzaileko emisioak saihesteko eta kontrolatzeko teknikak.

IV. Emisioak kontrolatzeko sistemak.

c) Instalazioaren datuak.

I. Instalazioen ezaugarri teknikoak jasoko dituen orria. Dena den, ondoko datuak jasotzeko beharko dira beti:

— Kokapenaren altuera.

— Estaldura-eremuak.

— Emisioaren frekuentziak, emisioaren potentziak eta polarizazioa.

— Modulazioa.

— Instalatu beharreko antena motak.

— Antena isotropiko batekiko irabaziak.

— Irradiatze-sistemaren jasotze-angelua.

— Uhin-sortaren estaldura.

— Sota irradiatzailearen antenen altuera.

— Irradiatze-sota nagusiko potentzia-dentsitatea (w/cm^2), antenarekiko neurrak zehaztuta.

II. Antenaren kokapena jasotzen duen planoak, UTM koordenatuetan eta gehienez ere 1:2000 kartografian egina eta lauki-sareaz hornitua. Planoan ingurumen arloko ebaluazioan eragina duten azpiegiturak adierazi beharko dira.

III. Eraikin mugakideen kokapen erlatiboa adieraziko duen planoak, 1:200 eskalan egina.

IV. Indarrean dagoen hirigintza plangintzaren arabera instalazioak hartzen duen luraren sailkapena eta kalifikazioa.

V. Diseinuaren norabide guztietan gehienezko irradiatze-potentzia isotropiko baliokidea W-tan grafikoki irudikatuko duten planoak, plano hauek eskala egokian egin beharko dira.

VI. Azpiegitura beste operadore batzuekin partekatuta erabiltzeko aukeraren justifikazio teknikoak.

3. Memoria.

Memoriak ondoko edukia izan beharko du:

a)Egituraren ikuspuntutik eta eraikinarekiko ainguren ikuspuntutik instalazioen egonkortasunaren kalkulu justifikatzaileak, dagozkion eraikuntza-planoak ere jaso beharko dira.

b)Ezarri beharreko ekipoen tipologiari eta ezaugarriei dagokionez teknologiarik onena erabiltzearen justifikazioa, hala ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko.

c)Jatorri atmosferikoko deskarga elektrikoen aurka babesteko eta beste instalazio batzuekin interferentzia elektromagnetikoak gerta daitezen saihesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa.

d)Ikus-eraginaren dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia; dokumentazio honetan argi eta garbi jaso beharko da instalazioak finkari dagokionez duen kokalekua eta finkaren beraren kokapena: Instalazioa ezarriko den ingurunearen deskribapena, hedadura, forma, materialak eta beste ezaugarri batzuk. Oinezkoaren ikuspuntutik instalazioak duen ikus-eraginaren simulazio grafikoa ere gaineratu beharko da.

e)Instalazioa segurtasun-baldintza ezin hobeetan mantentzeko konpromisoa edo aitortpena.

f)Instalazioa mantentzeari buruzko dokumentazioa.

g)Segurtasunari buruzko azterlana.

II. ERANSKINA

INSTALAZIOAREN SEGURTASUN ARAUAK

Gutxieneko tartearak

1. Eraikinaren estalkiaren gaineko antenak.

Antenak eraikinaren estalkian jarrita daudenean, edonola ere, Eraikuntzako Ordenantza Osagarrietan ezarritakoa bete behar dute beti, eta bertarako sarbidea instalazioaz kanpoko pertsonekin partekatu behar denean, eraikinaren ertzarekiko tartearekin proportzio zuzenean gehituko den gutxienez bi metroko altuera errespetatu beharko da.

Donostia, 2002ko urriaren 24a.—Carlos Azcoaga, Hirigintza Diziiplina eta Ingurumeneko Zuzendaria.

(2702) (11561)